

ERANDIO ELIZATEKO  
UDALAREN  
II. IPUIN LEHIAKETA

2002



ERANDIO ELIZATEKO  
UDALAREN

## II. IPUIN LEHIAKETA

2002



# EPAIMAHAIKIDEAK:

Xavier Kintana  
Guillermo Malaina  
Iñaki Iturralde  
Jose Antonio Riveiro  
Joxe A. Legarreta  
Luis M<sup>a</sup> Ibarluzea  
M. Josebe Azurmendi  
Mila Zubero

Marrazkiak eta maketazioa: "Rive"

Inprimategia:

EUSKOGRAF  
Jose Luis Goyoaga, 9  
48950 ERANDIO  
Tfno./Fax 94 467 03 49  
E-mail: euskograf@euskalnet.net

# SARITUAK

## A MAILA (9 urterartekoak):

1. Saria "*Julen eta izarrak*"  
**ALAZNE RODRIGUEZ RODRIGUEZ**
  2. Saria "*Geroa*"  
**ITZIAR FERNANDEZ DE ANDRES**
  3. Saria "*Bi antxumeak*"  
**MAITANE ALONSO MENENDEZ**
- Aipamen bereziak "*Arraina eta putzua*"  
**MAIDER BRIONGOS IBARRONDO**  
*"Leire eta leku miresgarria"*  
**IRATXE GONZALEZ ASPIAZU**

## B MAILA (10-12 urte bitartekoak):

1. Saria "*Amets gaiztoa*"  
**LEIRE AGIRREAZKUENAGA ONAINDIA**  
**IRATI ABONA ARRAETA**
  2. Saria "*Herentziaren bila*"  
**EUGENIA ANSOLA MARLASCA**  
**AINHIZE ELETXIGERRA HERNANDEZ**
  3. Saria "*Gau bat ilargian*"  
**ASIER GONZALEZ HERNANDEZ**
- Aipamen bereziak "*Printzesa itsusia*"  
**SAIOA OLMO IRAURGI**  
*"Etorkin bat Euskal Herrian"*  
**NAGORE MUÑOZ CAMARENA**  
*"Marieta koketa"*  
**PAOLA CASTRO ASTIGARRAGA**

## D MAILA (13-15 urte bitartekoak):

1. Saria "*Pagotxo eta Txirulin*"  
**ENERITZ MARTIARENA BEASKOETXEA**
2. Saria "*Masira*"  
**GARAZI GARZIA ULAZIA**
3. Saria "*Barraskilo baten istorioa*"  
**IKER SANCHEZ HERRERO**

## E MAILA (16 urtetik gorakoak)

1. Saria "*Gaixotasun ametsa*"  
**JANIRE SANTIAGO BONILLA**
2. Saria "*Zelan sortu zan xakea?*"  
**XABIER ELORDUIZAPATARIETXE INTXAURBE**
3. Saria "*Erandioztarrak eta petrikiloa*"  
**BIZKOR taldea**

Kaixo lagunok,

Hona natortzue, bigarren urtez, Udalak deitu II. ipuin lehiaketan sarituak izan diren lanak aurkeztera (eta aparteko aipamena merezi izan dutenak ere). Oso pozgarria da guretzat herritar guztiengandik –eta, batez ere, gaztetxoengandik– jasotako erantzuna, euskaraz idazteko interesa eta gogoa piztua dagoen seinale baita.


Aurten ere ipuin sorta ederra irakurri behar izan dute epaimahaikideek, eta oso gai ezberdin askotakoak. Haien lana ez da erraza izan, eta eskertu behar diegu euren ahalegina; bai eta partehartzaile guztiena ere, beren sormenaz gozatzeko aukera eman baitigute. Hala ere, ez dira bakan batzuk baino hautatu ahal izan esku artean duzuen liburuxka honetan bildu eta argitaratzeko.

Goza egizuez zuek ere ipuin hauek guztiak, eta anima zaitetze azken pausua ematen, irakurtzetik idaztera hain zuzen.

Mikel Arieta-araunabeña Bustinza

ALKATE-UDALBURUA

# JULEN ETA IZARRAK



Behin batean ume bat zegoen. Bere izena Julen zen. Juleni izarrak asko gustatzen zitzaizkion. Bere ametsa izar bat bere eskuetan edukitzea zen, horrela berarekin jolasteko, ukitzeko... Gauero, bere ama ohera joaten zenean, Julen ordu eta orduetan egoten zen leihoan izarrei begira.


Horregatik, Julenek astronauta izan nahi zuen. Orduan, asko ikasi eta gero, astronauta egin zen. Eta kohete batean ilargira abiatu zen. Bidetik, Julen izar bila ibili zen aurkitu arte. Aurkitu zituenean, nabetik irten eta Julenek izarrak bere eskuetan eduki ahal izan zituen azkenean, eta haiekin jolastu ere. Joateko ordua zen eta Julenek berarekin izar bat eraman nahi zuen, baina lurrera heltzen ari zenean, izarra desagertzen hasi zen. Arrazoia zen izarrak zeruan bakarrik egon ahal direla. Orduan Julen triste geratu zen. Baina pentsatu zuen denek izar bat hartuko balute zerua izar barik geldituko litzatekeela. Julen oso pozik heldu zen bere etxera. Bere ametsa egin zen.

*Alazne Rodriguez Rodriguez*

9 urte



GEROA



Amaia ipuin bat irakurtzen hasi zen, eta geroari buruz irakurtzen hasi zenean, ametsetan eta pentsatzen hasi zen. Kotxeek hegan egiten zuten, etxeak oso altuak ziren eta hegazkinak lurrean egoten ziren.

Amaiak hor geratu nahi zuen eta ametsetan geratu zen. Bat-batean, geroan zegoenean, auto batean zegoen hegan egiten.

Amaiak hor bizitzen geratu nahi zuen. Berak gizon bati esan zion:

- Zer ordu da?
- Zortziak eta hamar dira
- Eta zein egun?
- Azaroaren 21a da.

Eta Amaiak esan zion: *“eskerrik asko”*.

Gizonak erantzun zion: *“ez dago zergatik”*.

Amaiak dena probatu zuen eta oso ondo pasatu zuen. Baina ez zekien non zegoen, galdu egin zen eta.

Emakume bati galdetu zion:


- Zein kaletan gaude?
- *Winlik* kalean

Amaiak ez zekien zein kale zen hori. Eta etxera itzultzea pentsatu zuen. Amaiak pentsatu eta gero etxean agertu zen. Amaia oso pozik zegoen bere etxean.

Itziar Fernandez de Andres  
9 urte



# BI ANTZUMEAK



Bazen behin, etxe batean bi antxume jaio ziren. Amak esan zien egun batean:

- Gelditu hemen, ni basora noa.
- Geratu hemen ez utzi bakarrik –erantzun zion antxume txikiak.
- Bai, zu lasai egon. Guk dena zainduko dugu.

Eta ama joan egin zen.

Umeak aspertzen zirenez, basora joan ziren janari bila. Baina galdu egin ziren.

- Beldurtuta nago.
- Egon lasai anaitxo, ez da ezer gertatuko.

Baina laster gaua heldu zen eta basoan pasatu behar izan zuten gau osoa.

Bitartean, ama etxean zegoen oso arduratuta. Goizean, eguzkia atera zenean esnatu ziren bi antxumeak. Gosaltzeko marrubiak hartu zituzten. Baina halako batean, ezaguna zen zuhaitz bat ikusi zuten.


Ibili eta ibili, etxera heldu ziren.

*Maitane Alonso Menéndez*

7 urte



# ARRAINA ETA PUTZUA



Munduan beste asko bezala, Euskal Herriko baserri batean neska gazte bat bizi zen NAHIA izenekoa. Baserri honetan animalia asko zegoen, haien artean hiru katu, dortoka bat eta astotxo txiki bat. Animaliak oso lagunak ziren eta honako izenak zituzten: katu batek kolore asko zeukanez, KOLORIN, beste bat zuri-zuria zenez ZURITXU eta zuri eta beltzari ZURIBELTZ jarri zioten. Dortokaren izena KONTXOLEPA zen eta astotxo PLATERO.

Oso ondo bizi ziren denak, poz-pezik eguzkitan, tximeletak harrapatzen eta landetatik paseatzen Platero gainean. Egunero jolasean. Nahia oso jatorra zen. Lan asko egiten zuen ortuan, baina ez zeukan dirurik sobran. Horregatik, auzokide nagusi bat zaintzen zuen, etxea garbitzen eta bazkaria egiten, gaixorik zegoen eta.

Gaur, Nahiaren urtebetetzea da eta auzokideak opari bat eman dio: arrain gorri bat.

- Eskerrik asko. Lehenbailehen sartuko dut uretan. Oso polita da.

Nahiak arrain-ontzirik ez zeukanez, kristalezko pote baten barruan sartu zuen arraina. Orduan, oso pozik erakutsi zien oparia lagun guztiei.

- Kolorin, Zuritxu, Zuribeltz, Kontxolepa, astotxo: begira zer oparitu didan auzokideak!
- Oraindik ez dakit nola deitu. Izen polita jarriko diogu denon artean.

Orduan denak hasi ziren pentsatzen eta Zuritxuk hauxe esan zuen bat-batean:

- GOMINOLA! Gominola gustatzen zait. Eta denak egon ziren ados.
- Oso polita da izena eta gure laguna izango da oraindik aurrera. Ipuinak kontatuko dizkiogu eta egunero botako diogu janaria, esan zuen astotxok.

Egun batzuk pasatu ziren eta Gominola oso triste zegoen, gero eta tristeago, bizi zen lekua oso txikia zelako eta ez zuen lekurik ezta mugitzeko ere.

- Pote hau oso txikia da. Aspertzen naiz eta ezin dut igeri egin –esan zuen Gominolak lur jota.

Arratsaldean lagun guztiak elkartu ziren eta, bere laguna oso triste zegoenez, Gominolarentzat zer zen onena pentsatzen egon ziren.

- Lagunok, ideia on bat izan dut –esan zuen Kolorinek–. Nahiak ezin du arrain-ontzi on bat erosi, diru asko balio duelako. Baina han kanpoan putzu handi bat ikusi dut. Putzuak oso ur gardena du. Denon artean potea hartu ahal dugu eta putzura bota dezakegu Gominola.
- Primeran, baina lehenengo neu sartuko naiz eta begiratuko dut zer dagoen barruan –esan zuen Kontxolepa dortokak.

Oso ideia ona iruditu zitzaien guztiei eta dortoka putzuan sartu zen. *Plassf.* Dortoka oso igerilari ona zen eta putzu barruan egon zen denbora luze, eta irten ondoren, oso pozik kontatu zien besteei ikusitakoa.

- *Ze ondo...!* Arrainez beteta dago putzua. Segur aski, Gominolak lagun asko edukiko du –esan zuen Kontxolepak.

Orduan baserrira itzuli ziren guztiak. Potea denen artean hartu eta Gominola putzuan utzi zuten.

Baina Nahia berehala konturatu zen arraina desagertu zela eta oihuka hasi zen.

- Non dago Piruleta? Lagunok, Piruleta desagertu da!

Animaliek berehala kontatu zioten potean lekurik ez zeukanez, putzu batera bota zutela, eta putzua erakutsi zioten.

- Etorri eta ikusiko duzu non utzi dugun Gominola.

Eta han zegoen Gominola lagun ez inguraturik, poz-pez igeri egiten.

- Kaixo lagunok! –esan zuen Gominolak–. Hauek dira nire lagun berriak. Oso leku polita da hau eta zulo txiki batean egin dut nire etxea. Eskerrik asko ona ekartzeagatik. Putzua oso handia da eta igeri egin dezaket arineketan.

Orduan, Nahia konturatu zen Gominola lehen baino hobeto biziko zela leku berrian eta lagun berriekin.

- Oso ideia ona izan duzue. Jai handi bat egingo dugu ospatzeko. Musika ipiniko dizuet dantza egiteko, eta gozokiak jango ditugu. Eta egunero joango gara gure laguna bisitatzera –esan zuen Nahiak.

Horrela, handik aurrera oso pozik bizi izan ziren gure lagunak.

Eta hala bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Erandioko plazan.

*Maidar Briongos Ibarondo*

8 urte



LEIRE ETA LEKU MIRAGARRIA



Bazen behin Leire izeneko neskatila bat. Leire bere aita eta amarekin bizi zen. Alaba bakarra zen. Leire basoan zebilen loreak hartzen. Asko hartu zituen, baina etxerako bidea hartzerakoan ez zuen biderik aurkitzen, eta galduta zegoela konturatu zen. Ibili eta ibili baina ez zuen aurkitzen etxerako bidea. Gaua heldu zen eta Leirek kobazulo bat aurkitu zuen eta hantxe igaro zuen gaua.

Hurrengo goizean, esnatzean, ez zegoela leku berdinean konturatu zen. Leku miragarri horretan animaliek hitz egiten zuten.

Eta esnatu zenean, hauxe esan zion animalia batek:

- Egun on, nor zara?
- Nik Leire dut izena

Eta Leirek lagunak egin zituen.

Egun baten lagun batek hauxe galdetu zion:

- Zuk badaukazu familiarik
- Bai, noski –erantzun zion Leirek

Eta neskatilari bururatu zitzaion etxera joateko momentua iritsi zela. Eta lo egin eta hurrengo goizean kobazuloan zegoen berriro, eta ibili eta ibili eta azkenean bere etxea aurkitu zuen.

Eta aitari eta amari kontatzerakoan ez zioten sinetsi.

Eta hala bazan ez bazan, sar dadila Erandioko plazan.

*Iratxe Gonzalez Aspiazu*

8 urte



# AMETS GAIZTOA



“*Zer egiten dut hemen*”, zigortzen dut neure burura behin eta berriz galdera honekin, ohe gainean etzanda, leihotik begira, esne bero goxo-goxoa edan ondoren, ezti tanta batzuez zipriztinduta, leihotik begira, bai, tanta lodi eta mardulei begira, ezin erantzunik topa, ezin nire bidea aurkitu, ezin ezer egin, leihotik begira, besterik ez.

Nork esango zidan niri egoera honetan bukatuko nuenik, nork esango zuen hemen bukatuko nuenik, nork, eta nik, bizitzaren eta askatasun librearen borrokalari sutsua, zerua eta lurak bota ahalean ibili zen neska hura, 17 urte, eta lau paretetan ezkutatuta, mundu zital hau bizitzeaz nazkatuta. Hodei malatsek arranguraz, doluz, begiratzen didate, begi goibel eta ilunekin. Askotan badirudi bakarrik gaudela munduan, gure bizitza gogaikarri honetan. Baina leihotik begiratu, eta milaka lagun aurkitzen ditut, lehen begi dirdiratsuz begiratzen zidatenak, pozez beteak, begiak itsasoa bezain zabal zuten urdin biziak, baina jada, ez didate horrela begiratzen, ez baitaude. Hori aldatu da. Ez dago lagunik. Ez da lehengoa, eta ez inoiz ere izango, amaitu da, itzali da nire bihotza. Eskerrak oraindik arima gelditzen zaidan, lerro zikin, amorrus betetako hauek, idazteko bada ere.

“*Paregabea zara neska!*”, lagunak oihuka, ni inoiz baino alaiago. Bai, mundu perfektu batean bizi nintzen, lagun onak eta familia. Txoriak bezain pozik, egunero kantari, tximeleta liraina bezala, lorez-lore dabiltzan erleen antzera. Elur bigun eta fin hori, bai, neguan mendien gainean lo egiten duen horrek, ondo gogoratzen dut aitarekin joaten nintzenean, ederra zen, ahaztuko ez dudan zerbait. Elur leuna, zinbela, sentsazio bizia... beltza! Iluna! Gaua bere momenturik goibelean, bihotzik gabe, suak kiskalita, erreta, azkeneko negar tanta gazi eta garratza isuriz, zuritik beltzera, jendetzatik bakardadera, askatasunetik beldurrera, maitasunetik gorrotora; bai, horrela bizi naiz, gara. Jakin gabe, zuk, horrela pasa duzu zeure bizitza, edo norbaiti axola dozula pentsatzen duzu oraindik? Gezur pilo horretan zaude murgildurik? Putzu beltz honetan jausi aurretik ni nengoen bezala? Zinez nazazu inbidia dizudala oihukatzen badizut.

Beti zorientasuna bilatu nahi, eta ezin aurkitu, ezin erabat sentitu. Nola liteke hainbeste aurrerapen eduki ditugun lurralde, planeta batean, inor ez izatea guztia dohatsua.

“*Ez dago zu bezalakorik!*”, lagunek, pertsona onek, animatu, eta nik, momenturik txarrenean, gatzenean, huts egin. Dena bertan behera bota. Cupidarik gabe. Uda hartan nire lagunekin opor guztiak igarotzea zen nire planik gogokoena, klaseak bukatu, azkenean, eta urtean zehar prestaturiko hamar eguneko bidaia hastera gindoazen, gurasoengandik urrun, azkenaldian eztabaida asko izaten genituen etxean, eta azkenean infernu horretatik alde egin ahal izango nuen, pozez zorutzen nengoen. 20 bat lagun gindoazen, nahiz eta ni nire lagun onarekin ibiltzen nintzen gehienbat, batera, “*Paregabea! Ja, ja!*” barre eta jostatzeko prest, bata bestearen laguntzaile, eta adiskide, beti.

Orain hobeto egongo den esperantza daukat, mundu beltz honetatik kanpo, ni eta gizabanako asko sofritzen ari direnaren aurka babestuta, bai, ezingo du gehiago pairatu gajoak, nahikoa izan du, orain bakean bizi da, ez ni bezala, gutxika tristuraz hilko nauen mundu honetan oraindik.

Bi egun generamatzan jadanik han, mendian galduta, beno, herri txiki batean hobeto esanda, ostatu batean, gauean herrietatik parrandan, eta egunez lotan, sekulako oporrak, bai. Askotan guztiaren eta guztien erdigunea nintzen, nire kontu eta tontakeriengatik, besteetan berriz baztertua, *Naika*, beti nire ondoan zegoen lagun mina, bakarrik neukan. Artean ere, pozik bizi nintzen.

Laugarren eguna zen, eta gauean lagunek mendira joan nahi zuten ilargi bete zegoelako, baina nik hanka jokoa egin, eta ostatura joan nintzen, gaua atsedean hartzeko eta pentsatzeko nahi bainuen. Batzuetan honelako paranoiak etortzen zaizkit burura, eta egia esan leher eginda nengoen, beraz ohean goxo-goxo etzan nintzen. Gau hartan izan zen pentsakera hauek guztiak aztertzen hasi nintzenean, eta, orduan, zoriona eta heriotza ziren nagusi nire buruan, gau hartako ametsetan. Bat-batean zarata batek jausi batez esnatu ninduen, zarata txiki baina zorrotza, belarrian min egiten zidanak.

Ohetik altxatu eta *Naikaren* mugikorra zela ikusi nuen, jo eta jo ari zen, ia zoratu nintzen! Momentu batez erabat ahul sentitu nintzen, bernak mugitu ezinik, baina mugikor zorigabekoa eskuan hartzea lortu nuen, orain madarikatzen dudana. “*Ez!!! Ezinezkoa da!*” Golpe gogor batek lurpean bukatu zuen elkarrizketa, mugikorra apurturik, eta ni, deseginik. Bazirudien nire ametsak egia bihurtu zirela, zorientasuna, eta azkenik, heriotza. Euria ari zuen, gero eta ahulago sentitzen nintzen. Ilargia bezain zurbil nengoen gau hartan. Ohean, mugiezinik. Polizia zen, larrituta deitu zuen, *Naikarekin* hitz egitea zen bere nahia, eta niri esan zidan berri lazgarria, gurasoak lurpean zituen, jadanik, istripuan hilda.

Ezinezkoa, *Naikak* zeukan poztasun bakarra, ni eta familia, aita eta ama. Marmola bezain gogor geratu nintzen hura gelan sartzean, goitik behera bustita, irribarre galanta pizten zuen aurpegi bizian. “*Besteak mendian geratu dira, baina ni nire laguntxoarekin egon behar nuela esan dit senak! Eta bidean ekaitzak harrapatu nau!*”. Ezin nuen jasan, haren aurpegia, poztasuna, alaitasuna, ez, ez duzu hau merezi *Naika* maitea, zoriontasuna edo heriotza, baina hau ez! Horrela geratu zen. Burua gainean, eta labana eskuan, burutu nahi ez nuena egin nuen azkenean. Bihotza erori zitzaidan.

Zorigaitza datorkit gainera. Zerraldo erori zen gorpua, erle arina bezala, bere bidaiara amaitzean. Oinen azpian neukan bere sabela, odola, eta odola, nire begiak bezain gorria. Ez! Ezin liteke!

Horrela bizi naiz orain, atsekabeen murgildurik, egin nuena azaldu nahian, zoriontasunaren bila! Ez dakit, baina hemen ezkutatuta ez dut asko lortuko, idazteko harria bukatzen doa, idazki hau bezala, eta nire bizitza harekin doa, 4:00ak hezurra besterik ez den nire eskumutur txikian, goizegi, badirudi erloju ko p i l a g e l d i - t u d e l a , n i r e a b e z a l .....  
b e z a l .....

*Leire Agirreazkuenaga Onaindia*  
*Irati Abona Arraeta*

11 urte



# HERENTZIAREN BILA



Kaixo, Unai dut izena eta hamar urte ditut. Ume normala naiz, Arratian bizi naiz eta gehien gustatzen zaidan kirola futbola da. Alkiza da nire jokalaririk gustukoena.

Lehenengo egunean, parkera jolastera joan nintzenean, atso zahar bat aurkitu nuen eserleku batean eserita. Atsoa parkeko beste puntan zegoen, zuhaitz baten itzalean, eguzkia bizkarrena zuelarik. Bere janzkerari begiratuta, emakume txiroa zirudien. Arropa zarpailak zeramatzan eta oinutsik zihoan.

Ez nuen jolasteko gogorik. Harengana joan, bere ondoan esertzeko baimena eskatu, eta hitz egiten hasi ginen.

- Nola duzu izena, mutiko –galdetu zidan atsoak.

Dudatan egon nintzen. Erantzun ala ez erantzun, zerbait egingo ote zidan. Azkenean erantzutera ausartu nintzen.

- U... Unai –erantzun nion beldurtuta.
- Eta zenbat urte dituzu, Unai? –galdetu zidan berriro atsoak.
- Hamar –esan nion.
- Orduan, uste dut, istorio hau gustukoa izango duzula.

Eta hurrengo istorioa kontatzen hasi zen:

“1936ko negu hotz batean gertatu zen. Hurrengo istorioko pertsona nagusia nire lagun bat zen. *Argi* deitzen zen, eta denbora hartan hamalau urte inguru zituen. *Argi*ren gurasoak behartsuak ziren eta herriaren kanpoaldean zeukaten egurrezko txabola batean bizi ziren. Garai hartan *Argi* zen lagunik hoberena eta beti abentura bila zebilen.

Egun hartan, *Argi*ren gurasoak eta *Argi* bera ere herriko azokara joan ziren tomateak eta uhazak saltzera. Arratsaldea bukatzerakoan ez zuten ezer saldua eta triste bueltatu ziren etxera, baina momentu hartan *Argi* esan zuen:

- Aita, iturrira noa ura edatera, egarri naiz eta.

Bat-batean ekaitz izugarria etorri eta *Argi*ren gurasoak zeuden tokitik hurbil zegoen eraikin bat bota eta *Argi*ren gurasoak zanpatu zituen. Hura zorigaitza!

- Aitaa, amaa! –entzun zen *Argiren* ahotsa.
- Non zaudete? –galdetu zuen.

Ordu batzuk geroago *Argiren* etxerantz abiatu nintzen zer gertatu zen jakiteko asmoz. Atea ireki ondoren gertatutakoa kontatu zidan. Oso larri jarri nintzen, niretzat bigarren gurasoak bezalakoak zirelako.

Egunak joan, egunak etorri, eskutitz bat heldu zitzaion *Argiri*, bere aitona zen. Bere aitona nahiko aberatsa zen. *Argiren* amarentzat zen aitona herentzia. Eskutitzean, orain, herentzia hori *Argirena* zela jartzen zuen. Baina herentzia hori ezkutatuta zegoela eta *Argik* aurkitu beharko zuela esaten zuen ere. Aitonak ezin zion lagundu hil zorian zegoelako, baina lehenengo pista eman zion. Orduan nik, nire laguntza eskaini nion *Argiri*. Lehenengoak horrela esaten zuen: “*Afrikarengana joan behar duzu, laztana. Berari galdetu behar diozu zer egin behar duzun*”.

*Argi* eta ni pentsatzen hasi ginen: “*Afrikara joan beharko genuen?*”.

Ez geuden oso ziur, horregatik egun batzuk itxaron genituen.

Egun horietan *Argik* bere gurasoek gordetako diruaren potearen bila aritu zen. Hauetako egun batean egongelako kaxoi batean bilatu zuen. Bertan ez zuen diruaren potea aurkitu baina bai milaka eta milaka paper. Paper haien artean, karpeta zahar bat aurkitu zuen, karpeta barruan paper handi, zabal eta erre bat aurkitu zuen. Ireki eta “zuhaitz genealogiko” bat zela ikusi zuen. Irakurtzen jasi zen eta ... Eureka!!! Bere amaren izebak Afrika zuen izena. Orain guztiak zentzua zuen. Paper gehiagoren artean ibili zen eta Sevillan bizi zela jakin zuen. Azkar batean nire etxera etorri eta Sevillara joan behar genuela jakinarazi zidan. Nire aitarengana joan eta Sevillarako bidea hartu genuen. Oso paisaje politak zeuden. Euskal Herrian inoiz ez ikusitakoen modukoak. Zelaiak ez ziren berdeak, horiak baizik, eta kolore gorriak zituen hostoz beteriko zuhaitzak zeuden.

Bi ordu geroago Sevillara iritsi ginen eta bertako Udaletxera joan ginen Afrika Saezen etxeaz galdetzen. Hauxe izan zen erantzun zigutena:

- Bai, Napoleon kalean denda bat dauka, “Afrika Frutategia” du izena.

Harantz abiatu ginen. Hara heldutakoan Afrika Saezen berri galdetu genuen.

- Bai, ni naiz –erantzun zigun emakume hark.

Emakume hura berrogeita hamar urte zituen eta amantal zuri batekin jantzita zihoan.

- Ni *Argi* naiz –esan zuen *Argik*–. Zure iloba Ainhoa Sanchezen alaba.
- Ah, bai! Zure aitonak bidali al zaitu hona, laztana? –esan zidan andreak.
- Bai, andrea, bigarren pistaren bila etorri naiz –erantzun zion *Argik*.
- Bai, badaukat: *putzu handia zeharkatu behar duzu eta bertan jokatu*.
- Zer? –galdetu genion guk, ez baikenuen ezer ulertzen.
- Ezin dizuet ezer gehiagorik esan, nik ere ez baitakit –esan zigun andreak.
- Beno, berdin dio –erantzun zuen *Argik*.
- Eskerrik asko, agur.
- Bai, beno, agur.

Ordu erdi geroago ostatu batera iritsi ginen. Ez zen oso polita baina lo egiteko nahikoa.

Gaua han pasatu genuen eta goizean goiz pentsatzen hasi ginen: “*Zein izango zen putzu handia. Eta noiz, non eta zergatik jokatu behar genuen*”. Orduan egon ginen misterio hura argitu nahian, baina ezertxo ere ez. Erreflexionatu egiten genuen eta ezer. Baina azkenean ...

- Putzu batek ... ura dauka. Itsasoa, hondartza, ozeanoa, ... Bai! ozeano Atlantikoa, Indikoa, Artikoa ... adibidez Atlantikoa. Eta putzuaren beste aldean Amerika. Jokatu, jokatu ... Bai! Las Vegas eta Las Vegasen kasino. Hori da eta!. Herentzia Las Vegasen dago, Las Vegaseko kasino batean hain zuzen.

Arratsalde hartan *Argi*, nire aita eta ni Sevillako geltokira joan ginen, Galiziarako hiru txartel ateratzera.

- Hiru txartel Galiziarako, ahal den azkarren mesedez –esan zuen nire aitak.
- Hementxe dituzu, jauna –esan zigun txartel saltzaileak.

Gau hartan Galiziarako bidean geunden.

Bidea oso luzea egin zitzaidan, Galiziara iristeko irrikitan bainengoen. Azkenean iritsi ginen. Hura portu polita! Jada berandu zen eta horregatik hurrengo egunerako utzi genuen New Yorkera itsasontziz joateko txartelak erostearena.

Biharamunean txartelak erosi eta bidaiari ekin genion. Itsasontzia zuria eta handia zen. Jendez beterik zegoen, bazirudien hango jende guztiak suertea probatu nahi zuela beste herrialde batean. Bi egun geroago New Yorkeko portu berrituan sartu ginen. Hura jende piloa! Hura itsasontzi piloa! Jende guztia pozik zegoen. Itsasontzia portuan sartu eta egurrezko zubi bat jarri zuten gu bertatik igaro eta lurrera joateko. *Argi* ere oso pozik eta harriturik zegoen. Berehala New Yorkeko tren geltokira jo genuen.

- Bai, Las Vegaserako hiru tren txartel, mesedez –esan zuen nire aitak.
- Bai. hemen dituzue. Hurrengo irteera bi ordu barru da –erantzun zigun hango enplegatuak.

Denbora horretan New York bisitatu genuen. Tren geltokira joateko ordua iritsi zenean, triste jarri ginen, New York ikusten jarraitu nahi genuelako.

Tren geltokirantz abiatu ginen. Bertako eserleketan itxaroten genuen, trena etorri zen arte.

- Badator!!! –esan zuen *Argik* oihuka– azkenean abentura bat!

Trenera igo ginen eta lau orduz aritu ginen herentzia zer izango zen asmatu nahian. Dirua, urrea, bitxiak...

Azkenean iritsi ginen Las Vegasera. Guztia harez eta kasinoz beterik zegoen. Ez zegoen dudarik, hiru hura Las Vegas zen.

Hurrengo pista bere begien aurrean zegoen: *“Herentzia”* deituriko kasino bat. Bertara sartu eta han zegoen gizon bati galdetu genion. Kasinoko

zaindaria zela zirudien, traje beltz bat, alkandora zuri bat eta zapata garbi-garbi batzuk baitzeramatzan.

- Aizu, kasinoko arduraduna non dagoen ba al dakizu? –galdetu zion *Argik*.
- Bai, zure begien aurrean daukazu. *Argi* al zara, bere aitonaren herentziaren bila dabilen neskatoa?
- Bai, bai!! Neu naiz. Ba al dakizu non dagoen herentzia?
- Ez, baina pista bat daukat zuretzat: kasino honetan dago eta buelta asko eman behar dituzu hura aurkitzeko –esan zuen kasinoko arduradunak.
- Eskerrik asko, jauna –esan zuen *Argik*, kasinora sartuz.
- Ze joko dago kasinoan bueltak ematen dituen? –galdetu nuen nik.

Kasinotik bueltak ematen ari ginela, han non dagoen gure galderaren erantzuna.

- Erruleta!!!

Bertara hurbildu eta erruletan zegoen gizonari galdetu genion:

- Herentzia baten bila ari gara. Ba al dakizu non dagoen?
- Bai. Baina horretarako jokatu egin beharko duzue.
- Ba... jokatzera! –oihukatu zuen nire aitak.
- 3 dolar utzi behar dituzu joko hasteko.
- Hemen dituzu –esan zuen nire aitak dirua poltsikotik atereaz.

Erruletari eragin eta hiru minutu itxaron ondoren berriro botatzeko zeinua atera zitzaigun. Horrek urduritasun handiagoa eragin zuen han zeuden pertsonengan. Hango arduraduna erruleta berriro bota zuen. Oraingo honetan, diruaren zeinua atera zen.

- Aupa! Dirua lortu dugu. Baina non dago herentzia?

- Nik esango dizuet non dagoen, baina horretarako hemen utzi beharko duzue.
- Bai. Hemen utziko dugu baina... esan non dagoen herentzia.
- Trankil, trankil... ikusten al dituzue hango kortina horiek? Ez du inork uste baina haien atzean ate ezkutu bat dago. Orain dela hiru urte, zure aitonak gela hori egitea eta bertan bere herentzia ezkutatzea agindu zigun. Bertara joan, herentzia hartu eta alde hemendik. Inork ez dezala jakin herentzia inoiz hemen egon denik.
- Horrela izango da. Eskerrik asko.

Korrika joan ginen eta disimulu handiz kortinak baztertu eta bertan zegoen atea ireki genuen.

Bertan mahai bat zegoen. Mahaiaren gainean kaxa handi bat zegoen. Kaxara hurbildu eta zabaldu egin genuen. Barruan urrezko mila txanpon zeuden. Herentzia geurea zen jada !!!”

- Egia al da? –galdetu zuen Unai
- Guztiz egia –esan zuen atsoak.
- Beste bat!
- Beste egun batean, Unai, orain joan zaitez etxera.

*Eugenia Ansola Marlasca*  
*Ainhize Eletxigerra Hernandez*  
 11 urte



# GAU BAT ILARGIAN



Bazen behin Mikel izeneko mutil bat, 10 urte zeuzkan eta Erandion bizi zen. Imaginazio handia zeukan eta patioko orduan ez zuen inorekin jolasten, lagunik ez zeukalako. Gauero izarrei eta ilargiari begiratzen zien.

Gau batean, Mikel lotan zegoenean, estralurtar bat sartu zen logelaren leihotik. Mikel esnatu zenean eta ikusi zuenean oihu bat egin zuen.

Gero estralurtarrak esan zuen:

– Ni Fini deitzen naiz, eta zu?

Mikelek erantzun zuen:

- Mi, Mi...kel de., de...itzen naiz.
- Baina nola heldu zara Lurrera? – galdetu zion Mikelek.
- Nire untzian etorri naiz.

Mikel harrituta zegoen eta bat-batean Finik esan zuen:

- Etorri nahi duzu nire planetara?
- Bai, bai, bai, nahi dut –erantzun zion Mikelek oso pozik.

Orduan Finik txistu egin zuen eta untzia etxeko patio gainean geratu zen.

Mikel eta Fini untzian sartu ziren eta dardarka hasi zen. Mikelek ikusi zuen Erandio gainean zegoela eta Finiri esan zion:

- Hemendik Erandio osoa ikusten da, oso polita da.

Mikelek gero eta harridura handiagoa zeukan eta bat-batean belarriak itxi zitzaizkion eta berriro esan zuen oihuka:

- Ezin dut eser entzun!!! Zergatik da Fini?
- Hartu txikle hau eta berriro belarriak ondo edukiko dituzu –esan zuen Finik ere oihu egiten.

Mikelek hartu egin zuen: jogurt *kadukatu* baten zaporea zeukan, baina segundo batean belarriak ireki zitzaizkion.

Mikel konturatu zenean ez zeuden lurrean, ilargian baizik.

Mikeli jateko gogoia sartu zitzaion eta beste estralurtar bat agertu zen txokolatezko bi barrita eskuan zituela.

Mikeli bat eman zion eta Finiri beste bat.

- Hau oso gutxi da! –esan zuen Mikelek.
- Zuk jan Mikel, eta gero esan. –erantzun zion Finik ahoa beteta zuela.

Mikelek jan zuenean esan zuen:

- Mmmm, zein gozosa zegoen! Eta gainera tripa beteta daukat, ezin dut ezer gehiagorik jan.

Eta untziaren atzean 12 estralurtar gehiago agertu ziren.

Buruzagia zirudienak esan zuen:

- Mikel, etorri hona, mesedez! Zurekin hitz egin nahi dugu.

Mikel eta Fini hara joan ziren, orduan buruzagiak lurrean jo zuen hankaz eta mahai handi bat eta 14 aulki agertu ziren. Denak jezarri ziren eta buruzagiak esan zuen:

- Zuek, gizakiok zikinkeria guztia lurrera botatzen duzue eta atmosfera zikintzen duzue.

Beste batek esan zuen:

- Gero atmosfera apurtzen da eta zuloak egiten dira.

Berrito buruzagiak esan zuen:

- Gure kasuan zulo bat egin da eta Fini lurrera bidali dugu gizaki bat hona ekartzeko eta zu ekarri zaitu.

Estralurtar zahar batek segitu zuen hitz egiten:

- Gu lagunak gara, baina beste estralurtar bat etortzen bada zuei eraso egitera?

Mikelek ondo pentsatu zuen eta esan zuen oso urduri:

- Egia da, lurrera joango naiz eta denei esango diet.

Berriro Finirekin untzira sartu eta lurrera itzuli ziren. Mikel Erandioko Udaletxeko teilatura igo zen eta oihu egin zuen.

- Ez bota zikinkeriarik lurrera. Ni ilargian egon naiz eta estralurtar batek esan dit atmosfera apurtzen ari dela.

Denek begiratu zioten, baina bere izeko maltzurak agertu ziren eta esan zuten:

- Burutik jota dago, ez egin kasurik!

Eta jende guztia joan zen.

Gero poliziak eta suhiltzaileak etorri ziren eta esan zioten jaisteko, baina Mikel ez zen jaitsi.

- Egia da, ikusiko duzue! Fini atera!

Orduan batek esan zuen: “*Egia da*”

Eta alkateak esan zuen:

- Garbiketa kanpaina bat egingo dugu eta norbaitek zerbait botatzen badu lurrera isuna ipiniko diogu.

Hurrengo egunean Mikel eta Fini hitz egiten hasi ziren eta Finik ilargiko fosil bat oparitu zion, eta Mikelek telefono portatil bat.

Finik esan zion telefonoaren kutxan irakurtzen:

- *Fenetonoz* deituko dizut.

- Telefonoa da, ez da *fenetonoa* –esan zion Mikelek, eta biak batera barreka hasi ziren.

Finik agur esan zion Mikeli untxiaren leihotik eta Erandio Euskal Herriko herririk garbiena izan zen.

Kurtso bukaeran Mikelek klaseko notarik onenak atera zituen eta Finiri deitu egin zion esateko.

Finiri poz-pezik ipini zen, eta ea bisita bat egin ahal zion galdetu zion eta Mikelek baietz esan zuen.

Hilabete bat pasatu zen eta Fini berriro Erandiora etorri zen.

Finiri mozorrotu zen eta Erandiotik paseo bat ematera joan ziren eta Mikelek Finiri futbolera jolasten irakatsi zion.

Etxera itzuli zirenean Mikelek bere amari Fini hemen zegoela eta ea gelditu ahal zen betiko geldetu zion eta amak baietz esan zion eta biok logelara joan ziren jolastera.

Hurrengo urtean Fini ikastolara joan zen eta berak ere oso nota onak atera zituen.

Baina Finiri gehien gustatu zitzaiona lurreko janaria izan zen, batez ere Euskal Herriko txorizoak.

*Asier Gonzalez Hernandez*

10 urte



# PRINTZESA ITSUSIA



Bazen behin, Erromako (Italia) gaztelu handi batean bizi zen printzesa bat. Gazteluak lau dorre zituen. Dorre bakoitzak teilatu triangeluar bat zuen, eta bi leiho txiki zeuden. Printzesak dorre horietako batean egiten zuen lo, oso printzesa itsusia zenez aitak hara eramane baitzituen bere gauzak.

Egun batean printzesa pentsatzen hasi zen: *“Ni hemen oso txarto zaintzen naute, orduan gaztelutik alde egingo dut. Gaur gauean leihotik aterako naiz eta hirian etxe bat erosiko dut. Espero dut inork ez ikustea!”*

Gau hartan, hamaiketan edo, printzesa dorretik atera zen eta korrika alde egin zuen.

Erromako hirian etxe handi bat erosi zuen eta izen propio bat asmatu zuen: Ruberta.

Baina ez zegoen konforme jende guztia begiratzen ziolako modu txarrez, eta inork ez zuen bere lagun izan nahi. Baina Ruberta oso haserre zegoen, ez zuelako lagunik, orduan lagunak egin zituen baina diru truke. Pertsona bakoitzari 18,03 € orduko eman behar izan zien. Baina lagunei lotsa eman zien berarekin joateak eta bakarrik utzi zuten.

Ruberta bere etxera joan zen eta negarrez esan zuen:

- Ni naizen moduarekin ez nago ados. Horrela ezin naiz bizi mundu honetan, denek mespretxatzen naute. Badakit! “Corporacion dermoestetica”ra joango naiz eta liftin bat egingo du aurpegian.

Orduan Rubertak hartu zuen diru guztia eta “Corporacion dermoestetica”ra joan zen.

Baina joan zenean esan zioten 11.000 € balio zuela liftina egiteak.

Rubertak momentu horretan ez zekien zer egin, edo liftina edo ezer ez, diru asko balio zuelako. Azkenean baietz esan zuen eta itxaron behar zuen 2 egun, ez zuelako lekunik medikuaren agendan. Ruberta etxera joan zenean dirua atera zuen, baina momentu horretan ikusi zuen bakarrik 6.000 € zeukala. Telefonoa hartu zuen: 906 32 33 50 zenbakira deitu eta hauxe esan zuten:

- Kaixo, “Corporacion dermoestetica”ra deitu duzu, zer nahi duzu?
- Ba, nire kontsulta deuseztatu nahi nuke, ordaindu ezin dudalako.
- Oso ondo, esan zure izena, mesedez.
- Ruberta.
- Oso ondo, agur!

Egun horretan pentsatzen hasi zen:

- Ez daukat dirua liftina ordaintzeko eta lan egin beharko dut, baina zertan?

Hurrengo egunean egunkaria erosi zuen eta lanbideetako orrialdeak ikusi zituen. Berak idazkari izatea gustuko zuen, baina ez zegoen horretarako lanbiderik eta zaramari izatea pentsatu zuen.

Udalera joan zen alkateari lanbide bat eskatzeko, eta alkateak esan zion:

- Ondo, ze motatako lana nahi duzu?
- Zaramari.
- Bai! Zaramari. Argi duzu? Lanbide bat aukeratzen duzunean gero ezin duzu aldatu. Argi dago?
- Bai! bai! Zaramari izan nahi dut.

Alkateak lanbidea eta trajea eman zion.

Hilabete bat pasatu zenean, 5.000 € eman zioten eta diru guztia hartu zuenean etxera joan eta diru guztia hartu eta “Corporacion dermoestetica”ra abiatu zen.

Hor pasatu zituen 2 egun eta azkenean liftina egin ondoren etxera joan eta jende guztiekin ligatu zuen eta lagun piloak egin zituen.

*Saioa Olmo Iraurgi*

12 urte



# ETORKIN BAT EUSKAL HERRIAN



## 1. Euskal Herrian

Hau etorkin baten istorioa da. Atzerritar hau egun batean Kolonbiatik abiatu zen Euskal Herrira, muga txalupa batean igaroz. Mutil hau *Mozambe* deitzen zen, hogeitun urte zituen eta Kolonbia utzi zuen dirua irabaztearren bere familiari laguntzeko. *Mozambe* Euskal Herrira ailegatu bezain pronto, lanbide bat bilatzera joan zen, baina inork ez zion lanbiderik eman nahi, bere azalaren koloreagatik. Eta aitzakiak horrelakoak izaten ziren:

- Barkatu, baina ez dugu zuretzako lekurik.

Eta baita:

- Beste egun batean deitu egingo dizugu.

Baina *Mozambek* bazekien zer esan nahi zuten horrekin. *Mozambe* kalean bizi zen dirua eskatzen, abesten edo bere txirula jotzen, eta noizbehinka baten batek dirua botatzen zion.

## 2. Ospitalean

Egun batean *Mozambe* kaletik zebilela lapur batzuk atrakatu zuten eta *Mozambek* dirurik ez zeukan ez labanarekin zuritu zuten. Orduan norbaitek ospitalera deitu zuen eta *Mozambe* anbulantzia batean eraman zuten ospitalera. Ospitalean ebakuntza egin behar izan zioten, baina ondo amaitu zen. Zazpi egun pasa ziren, eta *Mozambe* ospitaletik atera zen, berriro kalean bizitzeko.

## 3. Musika-saioan

Egun batean abesten zegoela, *Mozamberi* gizon handi eta ondo jantzitakoa hurbildu zitzaion eta horrela esan zion:

- Barkatu, zuk nire musika-saioan abestu eta txirula joko zenuke?

*Mozamberi* irribarre goxoa atera zitzaion eta burua altxatuz geldetu zion:

- Eskerrik asko jauna, baina zuk uste duzu ondo egingo nukeela?

Eta gizonak erantzun:

- Noski baietz, neuk lagunduko dizut. Orduan *Mozambe* praktikatzen hasi zen. Musika-saio egunean, *Mozambe* urduri jarri zen eta txarto atera zitzaion, orduan gizonak kaleratu egin zuen *Mozambe*.

#### 4. Amaiera

Azkenean lanbide bat aurkitu zuen, neska beltz batekin ezkondu zen, hiru seme-alaba eduki zituen eta oso pozik bizi zen. Orain kaletik doanean inork zerbait esaten badio berak paso egiten du, bera Euskal Herrian betidanik bizi izan balitz bezala. Eta Kolonbiatik bere familia ekarri ahal izan du aurreztutako diruarekin, eta oso pozik bizi da orain duen bizitzarekin.

*Nagore Muñoz Camarena*

12 urte



# MARIETA KOKETA



Bazen behin ume bat. Marieta zuen izena, ile horia zeukan eta hiru begi aurpegian. Bera *Pasitonetik* zetorren eta *Kasiton* izeneko maskota bat zeukan.

Ikastolara etorri zen Euskara ikastera. Nolako zen *Pasiton* azaldu zien ikasleei.

Landare asko zituen, harrizko eta koloredunak ziren. Eguzkia biribil urdin bat zen eta zerua larrosa. Ez zeukaten etxerik, kraterrean bizitzen ziren. Bere janaria airea zen, oso nutritiboa zelako.

Mutilek barre egiten zuten Marietak hiru begi zituelako, baina ez zekiten hirugarrena iluntasunean ikusteko zela. Hori zen eguzki urdina zenez, argi gutxi ematen zuen.

Sartu ziren klasera, bost minutu pasata gutxi gorabehera, eta BOOOOMM! zarata handi bat entzun zen. Azkenean argia joan zen.

Bat-batean dena isilik geratu zen, guztiak harriturik geratu ziren, Marieta izan ezik, iluntasunean ikusten zuelako.

Orduan Marieta ikasleak lasaitzen saiatu zen eta esan zien berak konponduko zuela.

Joan zen konpontzera eta txinparta batek saltatu zion begira. Okulistarengana joan zen begia sendatzeko eta hiru begi zituelako sustoa hartu zuen okulistik.

Orduan esan zion:

- Nondik zatoz neskato?
- Ni *Pasitonetik* nator eta Marieta deitzen naiz –esan zuen Marietak.
- Betaurreko bereziak egin behar izango ditugu, hiru lente izango dira.

Marietari ideia asko gustatu zaio.

Bere arazoa konponduta, oso polita zegoen bere betaurrekoekin. Egun berria zen eta Marieta bere betaurrekoekin joan zen klasera. Mutilek berarekin ligatu nahi zuten baina berak ez zuen nahi.

Lagun asko egin zuen baina egun batean ala bestean joan beharko zuen *Pasitonera*.

Amaitu zuen kurtsoa eta Marietak euskara ikasi zuen, orduan Marietak *Pasitonera* joan behar izan zuen.

Bere txakurra eta bere gauzak hartu eta *Pasitonera* abiatu zen. Bilatu zuen bere etxea eta bere familiari musu handia bat eman zion.

Urte bat pasatu ondoren joan ziren Marieta bisitatzera. Marieta oso pozik jarri zen. Ume batek esan zion:

- Aste bat pasatzeko etorri gara.

Marieta poztu zen eta esan zion joateko afaltzera. Orduan denak joan ziren.

Aitor izeneko mutil bat kexatu zen. Afaria non zegoen galdetu zion Marietari, eta Marietak azaldu zion airea zela.

Aitorrek probatu zuen alde batetik eta esan zuen limoi zaporea zuela, beste aldetik probatu zuen eta menda zaporea zeukan.

Aste horretan oso ondo pasatu zuten denek, baina igandea ailegatu zen, orduan agurtu ziren eta Marietak ez zuen gehiago ikusi, baina bera pozik zegoen bere familiarekin. Marieta handia egin zen eta Euskal Herrira joan zen bizitzera.

Aitorren apartamentuan bizi izan ziren biak elkarrekin.

*Paola Castro Astigarraga*

11 urte



# PAGOTXO ETA TXIRULIN



Bazen behin, munduko izaki guztiak hitz egiten zuten garaian, Bizkaiko baso eder eta handi bat. Bertan, zuhaitz mota ugari bizi ziren elkarrekin eta oso pozik. Inoiz ez zen egon inolako istilurik ezta haserterik ere euren artean, elkarri laguntzen zioten.

Baina egun batean, laino beltz eta itsusi batek estali egin zuen baso eder horren zeru zatia, eguzkiaren errainuei ezinezkoa egiten zitzaizela zuhaitzek zeuden lekura arte sartzea. Bat-batean, inoiz entzun ez zituzten zarata eta soinu batzuk entzuten hasiak ziren eta zuhaitz guztiak isil-isilik geratu ziren, baina hauek ez ziren animalien soinuak, baizik eta gizonen ahotsak. Gizon hauek euren aizkorak erabiliz, zuhaitzak mozten hasi ziren, egur hori etxeak egiteko behar zutelako. Baina ez ziren konturatu zuhaitzak oihuka eta negarrez zeudela eta zuhaitz guztiak moztu zituzten. Bat izan ezik: zuhaitz hori oso txikia, ahula eta nahiko itsusia zenez, bera baino ez zen bertan geratu.

Gizonak joan zirenean, zuhaitza triste baino tristeago geratu zen, eta negar bizian zegoenean, txori bat agertu zen. Txori hau oso txori alai zen eta beti zegoen pozik, baina zuhaitza negarrez ikusi zuenean galdetu zion:

- Kaixo, nire izena Txirulin da, zergatik egiten duzu negar?
- Oso bakarrik nagoelako; gizon batzuk etorri dira eta nire lagun guztiak eraman dituzte, eta ni itsusia naizenez, hemen geratu naiz – erantzun zion zuhaitzak, oso triste zegoela– eta nire izena Pagotxo da; pozten nau zu ezagutzeak.
- Ez kezkatu, orain ni izango naiz zure laguna, eta egunero etorriko naiz zurekin egoteko; gainera ni ere nahiko bakarrik nago, gizon batzuk nire familia harrapatu dutelako, baina ahal dudanean joaten naiz bisitatxo bat egitera.
- Benetan esaten duzu? Eskertuko nizuke pilo bat; nahi baduzu nire adarretan gelditu ahal zara, oso adar berotxoak eta erosoak dira zuek, txoriak, habia egiteko. Eta gainera, beti egoten da zer edo zer jateko. Beraz, nirekin egon nahi baduzu? –esan zion Pagotxok alaiago.
- Baina zu horren bakarrik ez sentitzeko, ideia bat bururatu zait. Hemendik aurrera ez zara triste sentituko zuhaitz berriak ekarriko ditudalako, baso hau birlandatzeko eta lehen izan zuen itxura berreskuratzeko.

Hurrengo egunean Txirulin Gipuzkoako baso polit eta galant batera joan zen, eta bertako zuhaitzek emandako hainbat hazi hartu eta bere laguna zegoen baso izandako horra abiatu zen.

Txirulin eta Pagotxo lagun handiak bilakatu ziren eta arratsalde osoa eman zuten haziak ereiten. Gaua heldu baino lehen ereite lan hori bukatuta zegoen eta nekearen nekez biak lotara joan ziren.

Hurrengo egunean, Txirulin oso goiz esnatu zen eta kantu zoragarri batekin bere lagun mina Pagotxo esnatu zuen.

- Egunon Pagotxo, esnatu, gaurkoa egun ederra da eta gure lanarekin jarraitu beharra daukagu.
- Zer gertatzen da Txirulin? Oraindik oso goiz da eta eguzkia ere ez da atera. Zergatik horrenbesteko presa? –galdetu zioen Pagotxok, oraindik lo zegoelarik.
- Goizetik abestu behar diogulako eguzkiari inoiz baino ederrago ager dadin eta gure haziak sendo haz daitezten. Zure laguntza behar izango dut abesteko orduan, nik bakarrik ezin izango baitut.
- Nola? Nire laguntza abesteko? Nik ez dakit abesten, eta kantatzen badut euria egingo du eta ez eguzkia. Baina, ondo pentsatu ondoren ..., zuhaitzak hazteko euria ere ezinbesteko elementua da. Orduan, biok abestera !!!
- Pagotxo eta Txirulin abesten hasi ziren eta, magia izango balitz bezala, eguzkia eder-eder atera zen euriarekin batera. Lagun hauek aho-begi zabalik barrezka hasi ziren eta pozaren pozez, abesten jarraitu zuten minutu batzuetan.

Honen ondoren, honela esan zion Txirulinekin:

- Baina oraindik gure lana ez da bukatu, eta sendo baino sendoago hazteko zuhaitz hauek ongarrria behar izango dute.
- Eta nola lortuko dugu? Ni ezin naiz mugitu eta egia da, oso txikiak dira eurek bakarrik janaria lortzeko. Zer egingo dugu orain? Hil egingo dira –esan zuen Pagotxok jada negarrez zegoela.

- Ez zaitez kezkatu, nire lagun batzuei egingo diet bisitatxo bat eta eurek lagunduko digute –lasaitu zuen Txirulinek negarrez hasia zen Pagotxo.

Hala esan eta lan hori burutzen abiatu zen Txirulin. Hegaz zebilela, bere lagunak ikusi zituen eta jaitsi egin zen euren laguntza eskatzera.

- Kaixo lagunak, ez zineten nitaz ahaztuko ezta?

Eta Txirulin bere lagunekin Pagotxoren basora bueltatu zen.

- Nire lagunen gorotzei esker landatu berri ditugun haziak sendo-sendo haziko dira, eta laster zure lagunekin egongo zara. Ez kezkatu kontu handiz ibiliko dira eta! –esan zion Txirulinek lasaitzeko.

Esan eta egin, Txirulinen lagunak kaka egiten hasi ziren basotik zehar eta laster ongarriztatu zuten landa guztia. Usaina oso atsegina izan ez arren, Pagotxo oso pozik jarri zen eta eskerrak eman zizkien Txirulinen lagunei.

Egun batzuk pasa eta gero, Txirulin eta Pagotxok erein zituzten haziak zuhaitz bihurtu ziren eta lehen izan zen basoa berriro ere bere lekuan agertu zen. Pagotxo eta Txirulinek etxe berri bat sortu zuten eta handik aurrera Pagotxo ez zen berriz bakarrik sentitu, eta Txirulinek familia bat sortu zuen.

Hala bazan ala ez bazan  
sar dadila kalabazan  
eta atera dadila  
zure herriko plazan

*Eneritz Martiarena Beaskoetxea*

15 urte



# MASIRA



– Arin! Sartu! Ezin dugu denborarik galdu! –esan zion Nelsonek bere emazteari.

Pentsatutako plana arin gauzatu beharra zeukaten, bestela dena pikutara joango baitzen. Bi emakume soilik zeuden momentu hartan martxan hasi zen itsasontzitik at; baina ez zegoen gehiagorentzako lekurik. Nelsonek musu batekin agurtu zuen seguru aski berriro ikusiko ez zuen Masira. Triste zegoen, baina askotan hitz eginda zeukaten gai hura eta erabakia hartuta zegoen.

Ondorengo egunak oso gogorrak izan ziren itsasontzi hartan ezkutuan sartu ziren emakume guztientzat. Denak zeuden egoera berdinean, haurdun eta guztiek zeukaten helburu berbera: haien seme edo alaba iberiar penintsulan jaiotzea. Batzuk besteak baino gogorragoak ziren eta ahulenak poliki-poliki hiltzen zihoazen.

Petrolio-untzi hartan ematen zuten laugarren eguna zen eta hango egoera gogortzen hasi zen. Ez zeukaten ez edari ez janaririk, eta egoteko zeukaten espazio urria kiratsa zerien hildako gorpuez betetzen hasi zen. Masira beldurturik zegoen. Ez zuen uste itsasontzi hartatik bizirik aterako zenik. Zorabiatzen hasi zen eta zulo hartatik atera beharra zeukan hala edo nola. Oso arriskutsua zen. Marinelek bera itsasontzian ikusiz gero dena galduta zuen. Baina hain txarto zegoen, non bere beldur guztiak adore bihurtu eta kanpora irten baitzen. Zulo hartatik kanpo dena pasabidez beterik zegoen eta Masirak ez zekien zein aukeratu. Asko pentsatu gabe erdikotik joatea erabaki zuen. Txarto sentitzen zen. ura behar zuen eta baita haize freskoa ere.

Zer zen entzuten zuena? Gizon ahotsak ziren eta poz-pez ari ziren barre eta kantuka.

*“Ez, Masira ez. Ezin zara hurbildu. Oso arriskutsua izan liteke”* – esan zion bere buruari.

Baina gizon ahots haiek bere Nelson maitea gogorarazi zioten eta ezin izan zuen gizon haiengana hurbiltzeko zuen gogo geldiarazi.

Isil-isilik joan zen gela hartara arte eta burua atearen kontra jarri zuen gizonak entzun ahal izateko. Baina ondoren gehiago nahi izan zuen eta ate horretatik burua sartzea izan zen bere bizitzako oker nagusietako bat.

- Eh! Begira!! Beltz bat! –esan zuen mozkorturiko marinel batek.
- Korrika hasi da! Arin! harrapatu egin behar dugu –esan zuen beste batek.

Hau esatearekin batera guztiak Masiraren atzetik korrika hasi ziren, Masira altxor bat izango balitz bezala. Masirak bere burua galdurik ikusten zuen. Ez zekien ez nora jo ezta zer egin ere; seguru zekien bakarria haurdun egonda gizon haiek harrapatu egingo zutela eta gero auskalo zer egingo zuten berarekin.

Tamalez hala izan zen, eta ordu bete beranduago marinelen esku zegoen aulki bati loturik. Orduan, marinel mozkortuek galdeketa zorrotz bati ekin zioten:

- Eh! Zu nondik agertu zara? –esan zuen batek.
- Zergatik zaude itsasontzi honetan? –besteak.
- Nor gehiago etorri da zurekin? –hirugarren batek.
- Aizu, emagaldu alaena, erantzun edo bestela... –bukatu zuen erabat mozkorturik zegoen gizon potolo batek.

Masira ez zegoen galdera haien guztien erantzunetan pentsatzen, baizik eta bere Nelson maiteak eta berak horrenbeste hausnartutako ideian. Baina hala ere, bere pentsamenduetatik kanpo, gizon haien galdera bortitzen zurrunbiloa entzuten zuen. Oihuka egindako galdera batek eta honekin batera etorri zen bultzakadak bere kezken mundutik atera zuen.

- Aizu! Erantzun edo bestela itsasora botako zaitugu!

Honekin guztiarekin Masira asko urduritzen hasi zen eta bat-batean zorabiatu egin zen.

Begiak zabaldu eta emakumez inguraturik ikusi zuen bere burua. Ezinezkoa zen. Bera marinelen gelan harrapatu baitzeukaten.

- Masira, Masira –esan zion ezaguna egiten zitzaion ahots batek.
- Ondo al zaude lagun? –beste emakume ahots batek.

Begiak ondo zabaldu eta susmatzen zuena ikusi zuen. Bai, bere bidaide guztiak marinelen esku zeuden. Ez zegoen irtenbiderik; itxaropen guztiak galduta zeuden.

- Hi, Pedro! Gaur hire urtemuga denez emagaldu hau hiretzat uzten diat! –esan zuen erabat mozkorturik zegoen gizon potoloak.
- Zer diok? Utzi itzak emakume hauek bakean! Portura heltzean ikusiko diagu zer egin haiekin, baina orain utzi itzak bakean! –erantzun zion Pedrok.
- Bai zera! Nik gutxienez gozatu egingo dut beltz hauek hemen izatea. Portura arte eramateagatik ordaindu beharko duten bidesaria izango da –haserre marinela potoloaren lagunak.

Esan eta egin. Marinela gehienek emakume bana indarrean hartu eta haien gelara eraman zituzten. Hala ere Pedro eta beste bi gizon bertan geratu ziren gainontzekoek egindakoarekin ados ez. Masirak zorte ona eduki zuen eta gela hartan geratu zen beste emakume batekin. Hori zen bere aukera. Gizon haiek itsasontzi guztiko normalenak zirela ematen zuen eta laguntza jaso ahal izatekotan haiengandik etorriko zen.

- Pedro duzu izena, ezta? –esan zuen ez oso ziur.
- Bai. Baina zuri zer axola zaizu? –erantzun zion berak egoerarekin ezeroso.

- Agian zuk lagundu ahal izango zenidake. Beno, ez dut uste zuri haurdun dagoen ni bezalako emakume beltz bati laguntzea axolako zaizunik –esan zion azken irtenbide gisa bere burua gutxietsiz.
- Ea, zer da nahi duzuna? –erantzun zion berak Masirari lagundu nahian.

Erantzun honekin argi izpi bat ikusi zuen betearazi nahi zituen nahien multzo ilunean. Baina orain arazo bakarra zegoen. Gainontzeko emakumeak beste gizonekin zeuden eta ezin izango zuten haien atzapar nazkagarrietatik alde egin eta, ondorioz, berak eta berarekin zegoen beste emakumeak bakarrik alde egin ahal izango zuten handik.

- Zer? Ez didazu esan laguntza behar zenuela? –esan zion Pedrok erantzuten ez zuela ikustean.
- Ah! Bai! Zure eta beste bi gizon hauen laguntza behar dut. Nik eta nire lagunak hemendik irten behar dugu lehenbailehen. Gainera oso ahul gaude eta zer edo zer jan beharko genuke.
- Tori, hartu ur botila handi hau eta hemen dituzu zenbait ogitarteko. Baina hemendik irtetekoari buruz... ezin dizut ezer ziurtatu.
- Badakit! Popan eskegita daukagun txalupa txikian irten ahal zarete hemendik –esan zuen gizonetako batek eskuzabalki.
- Ah! Bai! Baina oso arin egin beharko genuke dena. Bestela gainontzeko gizonak agertuz gero... –esan zuen Pedrok begiak distiraka zituela.

Esan eta egin. Ordu bete beranduago Masira eta beste emakumea salbamendu txalupan zeuden eta hau itsasoratzeko prest zegoen. Pedrori eta bere adiskideei eskerrak eman ondoren, bakar-bakarrik egin beharko zuten bidaia bati hasiera eman zioten.

Hurrengo egunak oso gogorrak izan ziren. Bi emakumeak oso egoera txarrean aurkitzen ziren. Hotz ziren, jateko eta edatekoak bukatuta zituzten eta haurdunaldiak gaizki baina aurrera zihoazen. Txandaka egiten zuten arraun eta bata bogan zebilen bitartean besteak lo egiten zuen. Behin Masira loalditik itzartzean, bere laguna konorterik gabe zegoela ikusi zuen. Hasieran janari faltagatik sortutako zorabio bat izan zela pentsatu zuen, baina gero hilda zegoela konturatu zen.

Ezinezkoa zen. Orain zelan jarraituko zuen bidaia berak bakarrik? Indarge zegoen eta ez zeukan ezertarako adorerik. Baina sabelean zeraman semearengan pentsatzen hastean arin joaten zitzaizkion animoak berreskuratzen zituen. Egunak jan egunak etorri guztiz ahultzen joan zen, egun batean konortea galdu zuen arte.

... ..

Baina zer zen hura? Non zegoen? Ezin zuen sinetsi. Hura amets bat izan behar zen. Horma zuriak ikusten zituen, etzanda zegoen eta nonbaitera zeramaten. Burua altxatu eta... bai erietxe batean zegoen! Lortua zuen nahi zuena. Baina hain zegoen indarge, non berriro zorabiatu baitzen.

Itzartzean, ondoan zeukan emakume batek honakoa esan zion:

- Ondo al zaude andereño?
- Bai, bai, baina zer gertatu da? –galdetu zion indar guztiak berreskuratzen saiatuz.
- Itsasertzean aurkitu zaituzte eta konorterik gabe zeundenez hona ekarri zaituzte.

Gelako atea zabaldu zen eta bere bizitza osoko poz handiena hartu zuen. Medikuek bere semea zekarren. Bai, ezinezkoa baina hala zen.

- Tori, asko kostata baina hemen duzu, bizirik eta osasuntsu – esan zion medikuak.

Masirak ez zeukan umea hartzeko indarririk ere. Baina ahal zuen moduan honakoa esan zion erizainari:

- Mesedez, ekarriko al didazu bolaluma eta paper bat? Eta idatzitakoa bidaliko al duzu nik ematen dizudan helbidera?
- Bai, zelan ez andereño.

Bere semea altzoan zuela honakoa idatzi zuen paperean:

*Nelson maitea:*

*Lortu dugu nahi genuena. Gure semea iberiar penintsulan jaio da eta espero dut, egindako ahalegin guztien ondoren, berak gurea baino bizitza hobea eramatea. Beti maiteko zaitut.*


*Masira Mohame*

Hau idatzi ondoren, bere bihotzeko pultsazioak adierazten zituen makinatik soinu zorrotz eta desatsegin bat ateratzen hasi eta umea negarrez hasi zen. Masira hilda zegoen.

*Garazi Garzia Ulazia*  
15 urte



# BARRASKILO BATEN ISTORIOA



Bazen behin barraskilo bat korrika egitea gustatzen zitzaiona. Julen zuen izena eta, egunero, gosaldu aurretik, 30 metro egiten zituen korrika, eta gosaldu ondoren, berriro ere, lanera joateko. Julenek okindegi batean egiten zuen lan eta ez zitzaion ez ogia ezta mamia zuen ezer gustatzen.

Egun batean lanera zihoala, egunero bezala, horma-irudi berri bat ikusi eta irakurri zuen. Julenek irakurritako horma-irudiak zioenez, lasterketa bat izango zen bere herrian hiru egun barru, eta edozein herritarrek parte hartu ahal zuen. Oso pozik jarri zen hori irakurtzean, bere lehenengo lasterketan parte hartuko zuelako. Berak azkena helduko zela uste zuen, barraskiloa izateagatik, baina ez zuen amore emango.

Okindegian bukatu bezain laster entrenatzen hasi zen eta bi egunetan intentsiboki saiatu zen. Bazekien ez zuela irabaziko, baina ez zuen azkena heldu nahi. Julenen herria oso txikia zen eta partaide gutxi egongo ziren prest lasterketan parte hartzeko, baina mota desberdinetako intsektuak apuntatu ziren: bi armiarma, hiru zizare, bi matxinsalto eta barraskilo bat, Julen.

Lasterketa eguna iritsi zen. Euria ari zuen, eta zortzi partaideak prest zeuden. Minutu batzuk falta ziren irteera emateko... 3,2,1, *danba!!* entzun zen. Azkar baten atera ziren partaideak eta urrunean galdu ziren denak barraskiloa izan ezik. Matxinsaltoak aurrean ziren, saltoka, biak oso berdinduak. Hiru zizareak lurpean sartu ziren eta lur azpian galdu ziren. Armiarmak lehenengoak baino metro batzuk atzerago ziren,... Bat-batean, euria hasi zuen eta armiarmek toki seguru bat bilatu behar izan zuten ez bustitzeko; zizareek urarekin desorientatu eta atzera egin zuten konturatu barik; barraskiloak urarekin irrist egiten zuen eta azkarrago joaten hasi zen, matxinsaltoak ikusi arte. Baina ikusi zituenean ia helmugan ziren eta ezin izan zuen lehenengoa izan: hirugarrena ailegatu zen. Sariak emateko orduan Julenen izena esan zuten irabazletzat, matxinsaltoak deskalifikatuta gelditu zirelako saltoak ematen joateagatik.

Julen pozik zegoen bere mugak gainditu izanagatik.

*Iker Sanchez Herrero*

15 urte



# GAIXOTASUN AMETSA



Kaleko bizitza ez da batere erraza izaten, batez ere familiarik gabeko gazte batentzat.

Irene, izaera alaitsu eta hamabi urteko neskatxa zen. Txikitatik umezurtza izanik, bizimodua ahal bezala aurrera ateratzeko beharra izan zuen; batzuetan jateko adina lortuz eta beste batzuetan, ordea, ez.

Ilea ikatza bezain beltza zeukan, sorbaldetaraino luzatzen zitzaiona, eta gehienetan orraztu gabe eraman ohi zuena. Oso begi deigarriak izanik ere, inork ez zuen hauetaz hausnartzeko aukerarik izaten, begiak estaltzen zizkion kopetile luze baten erruz. Bere itxura narrasa, zeraman bizimoduaren adierazgarri zen. Txaplataz beteriko arropa zaharrak eta denboraren poderioz hautsitako zapata pare bat jantzirik, gora eta behera ibiltzen zen kalean zehar, jana lortzeko ahaleginetan.

Irenek, zazpi urte zituelarik bere gurasoak sute batean galdu ondoren, eta beste seniderik ez izanik, zabortegi batean kokatutako txabolatxo zahar batean bizitzeari ekin zion; bere lagun bakarra zen Tor izeneko txakurtxo polit eta maitekor batekin.

Egunero bezala, neskatilak eta bere kideak antzinatekoz beteriko denda batera joateko bidea hartu zuten. Hara heldu bezain laster, Irenek eskuak erakuslehoan pausatu eta han zegoen musika-kutxa bati begira geratu zitzaion denbora luzez; betetzen zuen mugimendu bakarra kliskatzekoa zelarrik. Kutxa egur ilunekoa zen. Estalkian ia nabarmendu ezin zitezkeen lore batzuk zeuden marrazturik, dekorazio gisa. Barnealdea, tertziopelo gorri leun batez tapaturik zegoen; eta bertan itsatsirik zegoen ispilu txiki batean, kutxaren erdian zegoen dantzari eder baten silueta ikus zezakeen.

Irenek momentu batez begiak itxi zituen eta bere barneko nonbaitetik heltzen zitzaion musika lasai eta triste bat entzuteari ekin zion.

Momentu horietan gaztea goibeldu ohi zen eta milaka oroitzapenek bere burua erasotzen zuten. Kutxa hori bere amarena zen garai batean. Jaioberria zenean, lo egin zezan jartzen zion ohearen alboko mahaitxoan eta Irenek goxotasun handiz gogoratzen zuen behin eta berriro entzuna zuen abestitxo hura.

Kutxatxoan geldirik ziharduen dantzari liluragarria Ireneren ametsetan aurkeztzen zen gauero. Hori dela medio, Irenek dantzari izatearekin egiten

zuen amets behin eta berriro, eta baita teatro handi eta ospetsu batean dantzatzen zuela ere, berari begira jezarrita zegoen jendetzaren txaloen eta txistuen aurrean. Baina egunero gertatzen zen bezala esnatu eta amets polit hura desagertu egiten zen.

Azkenik, auto hotsek eta herriko jendearen oihuek, neskatxa trantze hartatik ateratzea lortu zuten; eta asperturik bere alboan etzanda zegoen Tor-ekin abiatu zen gaztea janari bila.

Kalean zehar zihoala, alde batekoak eta bestekoak agurtuz zebilen orduoro, denek ezagutzen baitzuten. Ohikoa zen bezala, dendaz denda joan zen janari eske. Egun horretan bazirudien inork ez ziola janaririk eman nahi, denek neskatxaren eskaerari ezetza ematen baitzioten, aitzakia tuntunak jarritz. Baina bazekien fruta-dendan lan egiten zuen lagunak ez ziola gosarik pasatzen utziko, eta berdez margoturiko denda txiki batera sartu zen. Han lan egiten zuen mutikoak, irribarre maitekor batekin agurtu zuen Irene eta Tor-ekin jostaketan hasi zen. Oso mutiko guapoa zen, urrea bezain distiratsua zuen ilea eta aurpegi fin-fina. Neskatxa mutilarekin maiteminduta zegoen, baina nagusiegia zen berarentzat, 18 urte bete baitzituen aurreko astean. Hala ere, ametsetan, dantza-bikotekide zuen eta hauetan ez zitzaion hain nagusi iruditzen.

Mutikoak laster ulertu zuen zein zen Ireneren bisitatxoaren arrazoia eta berehala atera zizkion tomate, uhaza, laranja eta madari batzuk neskatxari; eta baita Tor-entzako saltxitxa pakete bat eta litro bat esne ere. Irenek, leloturik bezala, poltsa hartu eta eskerrak emanez dendatik atera ziren.

Oso pozik, euren bizilekua zen txabolarantz abiatu ziren. Iluntzen hasia zen eta gauean egiten zuen hotza hezurretan ere senti zezaketen Tor eta Irenek. Zabortegia inguratzen zuen sare metalikoan eginik zegoen zulotxotik sartu ziren biak eta ate gisa zeukaten egur xafla bat mugitu ondoren, bakoitza bere ohetxoan etzan zen, egun horretan lortutakoa jateko asmoz. Tor pozez txoratzen ari zen saltxitxak jaten, baina Irenek nekaturik moduan sentitu zuen bere burua, gaixorik, eta lo geratzea onena zela erabaki zuen. Holakoetan, neskatxak bere gurasoen falta asko nabaritzen zuen eta negarrez hasi zen. Bere laguntzua bere ohera igo eta lasaitzea lortu ondoren, biak lokartu ziren.

Hurrengo egunean, Irene eta Tor indarrez beterik jaiki ziren, egun berriari aurre egiteko prest. Katilu bete esne hotz edan eta jantzi bezain pronto herrira abiatu ziren.

Kaleak gora, kaleak behera, hara non diru-zorro bat aurkitu zuten. Irenek berarentzat geratzea behin ere pentsatu gabe, poliziarenera eramatea otu zitzaion. Baina orduan, norena zen ikusteko jakinmina sortu zitzaion eta poliki-poliki irekitzen hasi zen. Bertan argazki bat zegoen eta baita nortasun agiri bat ere. Karnetan zegoen emakume hura ezaguna zitzaion ... Antzinatez beteriko dendaren jabearena zen! Birritan pentsatu gabe, Tor eta gaztea hara abiatu ziren korrika batean, denda ez zegoen urrunegi...

Dendara lehen aldiz sartu zirenean, haren jabe zen emakume zaharrak modu jatorrean gonbidatu zituen barrurago sar zitezen. Atsoak ia-ia sudur puntan zituen betaurreko batzuen gainetik begiratu zien sartu berri ziren bi bezero bitxi haiei. Neskatxa ezaguna zitzaion, eguneko ikusten baitzuen erakusleihoan pausatutik, zerbaiti begira. Irenek diru-zorroa luzatu zion hitzik ere esan gabe. Emakumeak ez zuen ulertzen zer ari zen ematen, baina sudurraren parera hurbildu zuenean, sekulako poza hartu zuen. Gazteari musu bat eman zion eskuineko masailean eta txaloka hasi zen eskerrak behin eta berriz emanez; Tor zaunka zebilen bitartean.

Emakumeak aulkitxo bat atera, bere eserlekuaren alboan jarri eta neskari esertzeko eskatu zion keinu batez. Tor gailera batekin entretenitu ondoren, gazteari zuzendu zitzaion, eta berriz ere eskerrak eman ondoren, kontu-kontari hasi zitzaion neskatxari.

- Eskerrik asko nire diru-zorroa bueltatu izanagatik; benetan garrantzitsua zen niretzat...

Irenek ez zuen ulertzen zer zela eta hainbesteko garrantzia eta lehen aldiz hitz eginez galdetu zion atsoari:

- Zergatik da hain garrantzitsua ba diru-zorro hau, diru asko al zegoen barruan ala?
- Ez da dirua niri inporta zaidana, baizik eta bertan dauden argazkiak ... Ikusi honako argazki txiki zahar hau, nire ama da; daukadan argazki bakarra da eta oroitzapen ugari dakarzkite ..

Emakumea negarrez hasi zen eta Irenek, hunkiturik, besarkada epel batez inguratu zuen; aldi berean, atsoak gauza bera egin zuen. Gazteari zuela urte asko sentitzen ez zuen sentimendu bat ageri zitzaion eta bera ere negarrez hasi zen.

- Baina zer duzu neska? –galdetu zion atsoak– ez duzu zertan triste jarri zuk ere.
- Zuk behintzat baduzu zure amaren argazki bat; nirea, ordea, nire buruan gorderik bizi da...

Emakumeak entzuna zuen bere gurasoei gertatutakoa eta gai hartaz aldentzea onena izango zela pentsatu zuen.

Emakumeak termooan zeukan txokolate beroa eta gaileta batzuk eskaini zizkion. Ireneri aurpegia aldatu eta gustu handiz eman zion jateari. Emakumea berriz hasi zen:

- Egun hotza dugu gaur, zer deritzozu?

Neskatxak, aurpegia eta ahoa txokolatez beterik izanik, ezin zuen ezta hitzik esan ere, eta atsoak ekin zion berriro ere:

- Jan ezazu lasai, nik hitz egingo dut eta –esan zion barrezka hasiz– Nolabait eskertu nahi nizuke egin didazun faborea. Horregatik jakin nahiko nuke zein den egunero arreta deitzen dizun erakusleihoan dagoen objektua
- Kutxa –lortu zuen esatea Irenek, ahoan zuena bat-batean irentsiz.

Atsoa eserlekutik altxatu eta kutxa neskaren esku artean jarri zuen ez zikintzeko kontu handiz:

- Zuretzat, eta ez didazu zertan eskertu.

Irenek ezin zuen sinetsi. Begiak asko irekiz begiratzen ari zen behin eta berriro bere ametsetan agertutako kutxa hura. Eskuak garbitu ondoren, kordari eragin zion eta dantzaria dantzatzen hasi zen, musika malenkoniatsu baten soinupean.

- Eskerrik asko –esan zuen azkenean, begiak malkoz beterik zituela.

Denda ixteko ordua heldu zenean, elkar agurtu eta Tor eta Irene txabolarantz abiatu ziren, logura handiz, neskatxari aurpegian irribarre bat nabarmentzen zitzaion bitartean. Etxetxora heldu bezain laster, bakoitza bere ohera joan zen eta tripa ondo beterik, eta kutxatxoaren tonupean, biak lo seko

geratu ziren. Gau hartan, behin eta berriz errepikatzen zitzaion ametsa izan zuen neskatxak, inoiz baino goxoago sentitu zuena ...

Hurrengo egunean, esnatu eta geratzen zitzaien esne guztia edan zuten, dendako atsoak eman zizkien gailera batzuen laguntzaz. Gogotsu sentitzen zen Irene goiz hartan eta Tor ere pozik zebilen. Bere arropa eta oinetako zaharrak erantzi eta kulero eta kamisetatxo txuri batekin jantzirik geratu zen soilik. Txikitatik gorderik zeukan oihal arrosa polit bat tutu moduan jarriz, musika-kutxaren kordari eragin zion eta dantzatzen hasi zen txabola osoan zehar, gira eta biraka, Tor-en harridurazko begiradapean. Irene ametsetan murgildurik bezala zegoen, eta beranduago egingo zuen dantzaldirako azken entsaioa zela pentsatu zuen.

Denbora luzez horrela aritu ondoren, kutxa eskuetan hartu eta dena prest zegoen dantzariak bere ikuskizuna bete zezan!

Zabortegiaren izkina batean zegoen egurrezko kutxa batean igo zen eta musika-kutxa berriz ere martxan jarri zuen.

Orduan, erdi biluzik, oinutsik eta egiten zuen eguraldi txarraz, eszenatoki gisa erabiltzen zuen kutxaren gainean pausatu zen eta, teatroan zegoela pentsatuz, dantza egiteari ekin zion, fruta-dendan lan egiten zuen mutikoa bikotekide zuelarik.

Bueltaka eta bueltaka, biraka eta biraka, orduak eta orduak eman zituen; musika bukatzen zenean “jendetzaren” txaloei erreberentzia batekin erantzunez, eta saio berri bat hasiz.

Egia esanda, ikusle bakarra Tor txakurtxoaren zen, zeinek begirada kendu gabe neskatxa aztertzen ari zen.

Bat-batean euria hasi zuen, baina neskatxak ez zuen gelditzeko keinurik egin. Kutxatxoaren ondo estali ondoren, berriro ekin zion dantzatzeari; buelta bat hona, beste bi hara ..., bustitzen ari zela ohartu gabe eta ikuskizunaren parte bezala hartuz.

Baina pixkanaka-pixkanaka, neskatxa nekaturik sentitzen hasi zen, gaixorik, alegia, eta ohearen izkinatxo baten bolatxo baten antzera jezarri zen, Tor bere ondoan etzanik beroa ematen zion bitartean. Begiak itxi egiten zitzaizkion behin eta berriro, txarto sentitzen zen, gaixorik...

Minbiziak azkenik kontsumitua zuen barrutik Ireneren gorputz txikia eta ezina zitzaion salbatzea jadanik.

“Baina, non nago? Zer da argi hau?”

Ez dakit non nagoen; egia esanda berdin dit, baina nire senak esaten dit laster nire gurasoekin elkartuko naizela...”

*Janire Santiago Bonilla*  
17 urte



# ZELAN SORTU ZAN XAKEA?



Erdi Aroko eguzki distiratsu eta kiskalgarri ha agertu zan neguko goiz hotz haretan. Mendi artetik igaro eta Toray herrialdeko zeru erdian kokatu zan.

Herrialde haretan errege bat bizi zan, Zovirax izenekoa. Gau hartan erregeak amets bat euki eban. Zoviraxek gosalduek ostean ametsa bere emazteari kontatu eutsan. Ametsa hau izan zan: berak, erregeak, ez eban dibertitzeko jokurik edota ikustaldirik.

Orduan herrialde guztiko jakintsuak deitu ebazan, baina batek ere ez, ez eban asmatu joku dibertigarriak. Hau ikustean erregeak inmortalak ziren bost jainkoak deitu ebazan, basoko Gohtrak, mendiko Vhisox, uharteko Hawakan, lakuko Seawood eta lautadako Leim.

Bost jainko honeek berbetan denbora luzea egon ondoren, hau esan eutsien erregeari:

- Joku bat pentsatu dogu zu dibertitzeko. Prestatu dogun jokuan zeuk aukeratuko dozuz jokalariaik.

Orduan Zoviraxek honako hau erantzun eutsen:

- Zer egin behar dot, jokatzeko?
- Zure herrialdeko 6 herrialde aukeratuko dozuz. Eta ondoren nahi dozun moduan bikoteetan ipiniko dozuz euren artean borrokatzeko –esan eban Seawoodek, lakuko jainkoak.
- Eta ostean? –galde eban erregeak.
- Orduan, herri bakoitzeko alkatea eta bere emaztea preso hartuko dozuz, eta eurekin herriko sei gizon eta zortzi ume, danak mutilak –erantzun eban Hawakanek.
- Geroago, herri bakoitzeko jokalariei bi arku, bi dorre, bi zaldi, zortzi sarda eta bi ezpata emongo deutsezuz. Eta honeen helburua beste herriaren alkatea harrapatzea izango da.
- Lehiaketa bat prestatu daikezu –esan eban Vhisoxek, mendiko jainkoak.

Geroago jainkoak joan egin ziran eta erregea bitan pentsatu barik mapa hartu eban eta herriak aukeratzen hasi zan. Aukeratzen egoalarik gauza bat bururatu jakon, irabazten eban herriak, herrialdeko hiririk garrantzitsuena izango zan.

Afaldu ostean oheratu egin zan.

Hurrengo goizean lehiaketaren lehenengo partida jokatu zan eta herritar guztiak bildu ziran partida ha ikusteko. Herririk aberatsenak eta indartsuenak menpe hartu eban herri pobre eta ahul bat. Partida hau amaitu eta berehala hasi zan bestea, eta beti holantxe.

Pertsona asko hil ziran jokaturako 16 partidatan. Orduan erregeak jakinarazi eban bi herririk ahulenak eta pobreenak euren artean burukatuko zirala. Hau entzutean horreen artean egoan herri bateko ume batek Zoviraxi apur bat itxaroteko eskatu eutsan. Erregeak baietza emon eutsan umeari. Ostean umeak beste herriko jokalariai deitu ebazan eta 32 jokalariai alkartu eta berbetan hasi ziran. Denporea apur bat igaro ostean ume berbera hurreratu jakon eta esan eutsan:

- Errege jauna, zergaitik burukatzen dira zure herrialdeko herriak eta hiltzen da jendea zu dibertitzeko? Holan jarraitzen badozu jende guztia hilgo da eta ez zara inoren errege izango. Zergaitik ez dozu zuk beste herrialdeen aurka burukatzen?

Orduan Zoviraxek erantzun eutsan:

- Ideia zoragarria, oso azkarra zara mutiko eta gainera zure herria eta bestea bateratuko dodaz eta Torayko hiriburu izango dira. Geroago gaztelu bat eraikiko dot han eta hantxe biziko naz.

Hilabete bat geroago, prestatu ondoren, hasi zan Torayko erreinua burukatzen. Jokalariai, erregea, bere emaztea, bere zortzi semeak eta herrialdeko sei soldadurik onenak.

Sei partida irabazi ebezan jarraian, euretako inor hil barik.

Oso handia bilakatu zan Toray eta zazpi bider handiagoa zan. Orduan Schmidt izeneko beste herrialde baten kontra burukatzen tokatu jakon. Partida haretan irabazi egin eben barriz baina, erregeak bere emaztea eta zazpi

seme galdu ebazan betirako, hilda egozan. Zoviraxek hau ikustean, negarrez hasi zan eta berriz Torayra bueltatu zan.

Han jokua debekatu eban.

Denbora asko pasata, handik lau urtera, erregeari gauza bat bururatu jakon. Jokua egitea baina fitxakaz eta euren mogimenduagaz. Erregeak fitxak holan deitu ebazan: erregea, erregina, alfilak, zaldiak, dorreak eta peoiak.

Erregea berriz ezkondu zan eta zortzi seme euki ebazan.


Ordutik hona beti jolastu da erregla horreekin.

*Xabier Elorduizapatarietxe Intxaurbe*

16 urte



# ERANDIOZTARRAK ETA PETRIKILOA



Istorio hau orain dela urte asko gertatu zen, Erandion; Erandio Goikoan.

Eguzkia goian zegoen herri guztia begiratzen. Udaberriko egun polita zen eta herria zarataz beteta zegoen. Eraikin nagusia eliza zen, hain handia eta hain ederra!. Dorreko kanpaiak jotzen zirenean, soinua oso urrun heltzen zen. Egurrezko teilatuak eta harriz egindako etxeak inguruan zeuden. Kaleak estuak ziren eta lokatzaz beteta zeuden, herritarrek ura eta zarama bertara botatzen zituztelako.

Herriko plazan umeez jolasten zuten bitartean, gizonak kartetan zeuden tabernan. Emakumeak, berriz, errekan arropa garbitzen.

Herriko jendea nahiko ondo bizi zen, nahiz eta gauza asko eduki ez. Bizitza lasai-lasai pasatzen zen, bakoitzak bere gauzatan: batzuek mendian lan egiten zuten, ardiak zaintzen; beste batzuek beren lurrak lantzen zituzten; bazegoen umeei irakurtzen eta idazten irakasten zien apaiza ere.

Egun euritsu batean agertu zen gure herrian pertsona arraroa. Pertsona hau oso altua zen, ile luzea zuen eta bere jantziek kolore asko zeukaten. Gurdi baten gainean heldu zen. Bi astok zeramaten gurdi bitxi eta gauzaz betetako hura. Aparejuak oso distiratsuak ziren. Petrikilo hau oihuka sartu zen herrian, bere tresnekin zarata egiten, eta zera entzuten zen:

- Zeuen bizitza aldatzeko sekretua daukat. Etor zaitezte, hurbil zaitezte!! Nik daukat irtenbidea, nire botikekin ez da gaixotasunik egongo!! –esaten zuen herriko plazan bere gauzekin jarri zen bitartean, oihukatzen eta antzezten.

Jendea hori entzutean, hurbildu egin zen gurdi ondora. Begiak zabal-zabalik zituzten hainbeste flasko eta tresna ikustean. Flasko mota asko eta kolore desberdinetakoak zeuzkan; batzuk ilea luzatzeko ziren, beste batzuk garatxoak kentzeko, atzerago hagnetako mina kentzeko, ondoan indarra gehiagotzeko, amorante asko lortzeko, bizi luzea izateko, ...

Herrikoak oso zorionsuak ziren eta ez zutela ezer behar pentsatzen zuten, denetarikoa zeukatelako. Baina beste alde batetik, gauza horiek oso merkeak ziren eta beraien buruari galdetzen zioten: “*Zer galdu dezakegu?*”.

Bat-batean, jende artean agertu zen herren bat, makila zuela. Petrikiloarenera hurbildu eta esan zion:

- Aizu, jauna! Begira nire hanka, badaukazu zeozer niretzako?. Nire ustez zu gezurtia zara eta ezin izango nauzu sendatu.

Petrikiloa gurdi barrura joan zen, flasko berde bat hartu eta herrenari esan zion:

- Edan, edan, honekin sendatuko zara. Edabe honek herrentasuna kenduko dizu.
- Ez, ez, ez... ez dizut sinesten. Ezetz esan dut –erantzun zion herrenak.

Hainbeste tematu zen petrikiloa ezen herrenak botika edan zuen eta bat-batean makila lurrera bota zuen eta saltoka hasi zen oihukatzen:

- Miraria, miraria!! Begiratu nola nabilen!!

Herrikoak ilaran jarri ziren eta botikak eskatzen hasi ziren. Gauza arraroak eskatzen zituzten, inoiz bururatu ere ez zitzaizkienak, baina orain bizitza luzeagoa eta politagoa izan nahi zuten. Hau dela eta, erdi zoratu ziren. Jendeak denetarik hartu zuen eta etxera joan ziren oso pozik flaskoekin, onak zirela pentsatuz.

Hurrengo egunean, ohetik altxatu eta gero, oihukatzen hasi ziren. Kalera joan ziren oso urduri eta kezkatuta. Gizon batzuek buruan ez zeukaten ilerik, besteak ilez beteta zeukaten gorputz osoa. Emakume pare bat bizarrarekin agertu ziren, beste hainbatek aurpegia garatxo beteta zuten, batzuei atzazalak erori zitzaizkien, hangoak itsu geratu ziren, ...

Arazo hauek ikustean, erandioztarrek bilera egin zuten eta petrikiloaren bila joatea erabaki zuten. Herriz herri joan ziren morroia bilatzen. Zeharkatzen zituzten herri guztietan gauza bera gertatua zen. Denak oso haserre zeuden eta petrikiloaren burua nahi zuten. Deriora heltzean, herriko plazan, derioztarrek esan zieten ez zegoela ezer egiterik, petrikiloa oso urrun egongo zela eta.

Erandio Goikoara itzuli ziren eta errepidetik zihoazenean beste saltzaile bat ikusi zuten. Saltzailea oihukatzen zegoen bere gauzak saltzeko. Jendeak, haserre, sekulako errieta egin zion eta saltzaile gizajoak ostikada asko jaso zuen. Herritarrek jipoitu eta gero gurdirantz joan ziren eta lurrera bota, den-dena apurtzeko asmoz. Baina, orduan, flaskorik edo pozoirik ez zegoela ikusi zuten, lapikoak eta haziak bazik.

Saltzailea lurrean zegoenean jendeari galdetzen hasi zen:

- Zergatik jo nauzue? Zer egin dut nik, hau merezi izateko?

Erandioztarrak ixil-ixilik geratu ziren eta ahots bat entzun zen atzeko aldetik:

- ARDIAREN KULPAK BILDOTSAK PAGATU.

Azkenean goikoatarrek lagundu zioten gizonari gurdia konpontzen eta saltzaileak jarraitu zuen bere bidea. Goikoara heltzean konturatu ziren botikaren ondorioak desagertzen zeudela. Ikasi zuten dena ez dela hain polita beti eta erabakiak ordaintzen direla.


*Bizkor taldea*  
*Erandioko Udal Euskaltegia*



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Kultura Saila

*Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren  
Kultura Sailaren laguntza jaso du*



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailordetza



**ERANDIO ELIZATEKO UDALA**

*Kultura Saila – Euskara Zerbitzua*